 IBARRAKO UDALA GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA	Espedientea: / Expediente:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 2021WDIZ0002
	Sarrera-erregistroa: / Registro de entrada:	000306 - 2021/01/26
	Dekretu-zk.: / N° Decreto:	442 / 2021
	Titularra: / Titular:	IBARRAKO UDALA
	Ordezkarria: / Representante:	
	Gaia: / Asunto:	Herri Urrats: 2021eko dirulaguntza

442/2021 ALKATE DEKRETUA

2021ko urtarrilaren 26an, Beñat Bidegain jaunak, HERRI URRATS elkartearen izenean 000306 sarrera erregistro zenbakia duen idatzi bidez dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen Ibarra Udalean

Aipatu eskaeran adierazten den moduan, Herri Urrats da Iparraldean euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntzara sustatzea helburu du ekintza..

Ibarra udala bat dator Nafarroa Oinez ekintzarekin lortu nahi diren helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarra udalak 2020ko otsailaren 18an onartutako 2020-2023 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela Herri Urrats.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela Herri Urrats delako Iparraldean euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntzara sustatzea helburu duen festa bakarra, eta ondorioz, bera bakarra dela.

Kontuan harturik, Euskara arloko diru-laguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.02 diru-partida .

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Kontuan harturik, 2020an ez zela Herri Urratsik egin Covid-19 birusa dela eta, eta ondorioz, 163/2020 alkate dekretu bidez emandako 1.000 €ko dirulaguntza ez zela ordaindu eta 2021erako gordetzeko erabaki zuela.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundearen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA.- Diruz Iparraldean euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntzara sustatzea helburu duen Herri Urrats egitasmoa..


BIGARRENA.- Aipatu diru-laguntza 1.000 €-koa izango da eta Herri Urrats 2021 egitasmoa antolatzen duen Herri Urrats Elkarteari (399 539 196 000 10) ordainduko zaio 2095 5045 8710 6117 7332 kontu korrontean

HIRUGARRENA.- Aipatu kopurua 2021ko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.02 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako diru-laguntza honi aurre egiteko.

LAUGARRENA.- Ordaintzea Ibarra udalak 163/2020 alkate dekretuan onartutako 1.000 euroko dirulaguntza, goian zehazten den kontu korronte eta elkarteari.

BOSGARRENA.- Aipatu diru-laguntza helburu bererako beste diru-laguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administratziotik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen.

SEIGARRENA.- Diru-laguntza ordainketa bakarrean egingo da

	Espedientea: / Expediente:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 2021WDIZ0002
	Sarrera-erregistroa: / Registro de entrada:	000306 - 2021/01/26
	Dekretu-zk.: / N° Decreto:	442 / 2021
	Titularra: / Titular:	IBARRAKO UDALA
	Ordezkarria: / Representante:	
	Gaia: / Asunto:	Herri Urrats: 2021eko dirulaguntza

ZAZPIGARRENA.- Egindako diru-ekarpina justifikatzeko Herri Urrats 2020 ekimenaren antolatzaileek honakoa aurkeztu beharko dute 2021ko urtarrilaren 29a baino lehen:

- a. Jardueraren memoria, diru-laguntza jaso duen ekintzarena.
- b. Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena

ZORTZIGARRENA.- Diru-laguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

BEDERATZIGARRENA.- Aipatu akordio hau interesatuari jakinaraziko zaio (E).

HAMARGARRENA.- Aipatutako akordioaren berri udalbatzari emango zaio egiten duen lehen bilkuran.

Ibarra, 2021eko uztailaren 13a

Igor Zapirain Lizarribar

Alkatea



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU8471ec9a-236d-4930-b410-bd836fbb2975**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopia osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04210>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04210>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021WDIZ0002-Dekretua/Decreto (IBARRAKO UDALA)